

AKORDIOA, 1992ko maiatzaren 19koa, Diputatuen Kontseiluarena, Garraio eta Bide-Azpiegitura Saileko Proiektu eta B mailako Errepide-Eraiketakarako Zerbitzuko Buruzagi izateko lanpostua, izendapen iarezko sistemaz, betetzeko deialdi publikoa onartzen duena. 4774

AKORDIOA, 1992ko maiatzaren 19koa, Diputatuen Kontseiluarena, Nekazaritza eta Gune Naturalen Saileko Abelzaintza Zerbitzuko Buruzagi izateko lanpostua, izendapen iarezko sistemaz, betetzeko deialdi publikoa onartzen duena. 4775

ACUERDO de 19 de mayo de 1992, del Consejo de Diputados, por el que se aprueba la convocatoria pública para la provisión mediante el sistema de libre designación del puesto de Jefe de Servicio de Proyectos y Construcción de Carreteras-B del Departamento de Transportes e Infraestructuras Viarias. 4774

ACUERDO de 19 de mayo de 1992, del Consejo de Diputados, por el que se aprueba la convocatoria pública para la provisión mediante el sistema de libre designación del puesto de Jefe de Servicio de Ganadería del Departamento de Agricultura y Espacios Naturales. 4775

Partikularren Iragarpenak Anuncios Particulares

GIPUZKOA ETA DONOSTIAKO AURREZKI KUTXA

DEIALDIA, Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián-Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa honen Ohizko Batzar Nagusia egiteari buruzkoa. 4776

CAJA GIPUZKOA SAN SEBASTIAN

CONVOCATORIA de Asamblea General Ordinaria de esta Caja de Ahorros y Monte de Piedad de Gipuzkoa y San Sebastián-Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa. 4776

Euskal Autonomi Elkarteko Xedapen Orokorrak Disposiciones Generales del País Vasco

LEHENDAKARITZA

1532

2/1992 LEGEA, maiatzaren 8koa, Lan-Harremanetarako Batzordearen zerbitzupeko langilegoa antolatze-ko dena.

Euskadiko herritar guztiei jakinarazten zaie Eusko Legebiltzarrak ondoko Legea onartu duela:

2/1992 LEGEA, MAIATZAREN 8KOA, LAN-HARREMANETARAKO BATZORDEAREN ZERBITZUPEKO LANGILEGOAREN ANTOLAKETARAKOA.

Zioen adierazpena

Irailaren 30eko 9/1981 Legeak, "Lan-Harremanetarako Batzordea"ri buruzkoak, autonomia osoa eman zion Batzordeari, lan-harremanen alorrean elkarrikteta, kontsulta eta erabakietarako organo lez bere egitekoak bete ditzan.

Autonomia horren babesean, 9/1981 Legeko 11. atalean Batzordeak bere zerbitzupeko langilegoa izango zuela oharteman zen, zeina Autonomi Elkarteko Administrazioaren zerbitzupeko langilegoari ezarri dakiokeen araubide berari lotuko bait zitzaion.

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legea onartu zenean, arau-esparru bateratua ezarri zen, euskal administrazio publikoentzat funtzio publikorako euskal eredu lortzeko helburuarekin,

PRESIDENCIA

1532

LEY 2/1992, de 8 de mayo, de ordenación del personal al servicio del Consejo de Relaciones Laborales.

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 2/1992, DE 8 DE MAYO, DE ORDENACIÓN DEL PERSONAL AL SERVICIO DEL CONSEJO DE RELACIONES LABORALES.

Exposición de Motivos

La Ley 9/1981, de 30 de septiembre, sobre "Consejo de Relaciones Laborales", otorgó plena autonomía al Consejo para el cumplimiento de sus fines, como órgano de diálogo, consulta y decisión en materia de relaciones laborales.

Al amparo de la citada autonomía, el artículo 11 de la Ley 9/1981 previó que el Consejo se dotaría con propio personal sujeto al mismo régimen aplicable al personal al servicio de la Comunidad Autónoma.

Con la aprobación de la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, se establece un marco unitario de regulación, con el objetivo de alcanzar un modelo vasco de función pública para las distintas

aipatu legearen ezarpen-esparruan, 2.1 c) atalean, Lan-Harremanetarako Batzordearen zerbitzupeko langilegoa sartu zelarik.

Araudi hori horrela, nabaria da Batzordearen zerbitzupeko langilegoak Autonomi Elkartekeko Administrazioan diharduenaren lege-araubide eta lan-baldintza berdinak izateko dagoen borondatea.

Legeak Euskal Funtzio Publikoaren egitura bateratuaren alde berariz egiten badu ere, badira antolakera bakoitzaren berezko berezitasunak errespetatuz osatu beharreko alderdiak, eta hauek zerbitzu bakoitzaren esparruak dituen apartekotasunetara egokitzen saiatu beharko da.

Hain zuzen ere, 6/1989 Legeko 12. atalean ezarritakoaren arabera, eskuduntzen banaketari dagokionez, Administrazio bakoitzaren barnean gai honen gainean eman beharreko eskurantzetan eragiten duten zehaztapen horiek.

Bestalde baldintza berak hala behartzen duenez, hasierako esparruaren garapen armonikoa burutzeko bide jakin batzuk oharmentzen ditu Legeak, eta bere 40. atalean agintzen du funtzionarioen kidegoak edo mailak Eusko Legebiltzarraren Legez sortu, aldatu edo kenduko direla.

Lege honekin arazo biei erantzuna eman nahi zaie, baita arau-esparrurik ez izategatik Batzordean aldibaterako egoeraz ihardun beharra izan zuen langilegoarentzat lan-harreman egonkorra lortzea ere.

Horiek horrela, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legean jasotako aurrikuspenetara egokitze jakin batzuk burutzea da Lege honen funtsezko helburua, Lan-Harremanetarako Batzordearen zerbitzupeko langilegoari ezarri dakion, beronen egitura eta jardunbidea kontutan hartu ondoren.

1. atala

- 1.- Honako hauek osatzen dute Lan-Harremanetarako Batzordearen zerbitzupeko langilegoa, Lege honen ezarpen-esparruan sartutakoa hain zuzen:
 - a) Karrerako funtzionarioek.
 - b) Bitarteko funtzionarioek.
 - c) Behin-behingoko langilegoak.
 - d) Langilego laboralak.
- 2.- Lan-Harremanetarako Batzordeko lanpostuak funtzionarioek beteko dituzte normalean. Kasu batzutan, salbuezpenez, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean adierazitako era eta baldintzekin, funtzionari ez direnek ere bete ahal izango dituzte lanpostu horiek.

2. atala

Batzordeko Batzarrari dagokio:

Administracione. Públicas Vascas, incluyendo en su ámbito de aplicación, artículo 2.1 c), al personal al servicio del Consejo de Relaciones Laborales.

De la normativa señalada se deduce la voluntad de que el personal al servicio del Consejo se sujete a igual régimen jurídico y condiciones de empleo que el que presta sus servicios en la Administración de la Comunidad Autónoma.

Aun cuando la Ley expresamente se pronuncia por una estructura común de la Función Pública Vasca, existen aspectos cuya configuración requiere un respeto a las peculiaridades inherentes a cada organización, debiéndose procurar su adecuación a las singularidades del respectivo marco de prestación de servicios.

En concreto, conforme al artículo 12 de la Ley 6/1989, tales determinaciones inciden, en lo que al reparto de las competencias se refiere, sobre las atribuciones que con relación a la materia es preciso conferir en el seno de cada Administración.

Por otro lado, también por exigencia de idéntica premisa, la Ley contempla determinados mecanismos de desarrollo armonizado del marco inicial, dictaminando en su artículo 40 que la creación, modificación o supresión de Cuerpos o Escalas de funcionarios se realice por Ley del Parlamento Vasco.

La presente Ley pretende dar respuesta a ambas cuestiones, así como a la relativa al acceso a una relación estable para aquel personal que, ante la carencia de marco normativo, se vio obligado a servir al Consejo bajo fórmulas de carácter transitorio.

Por todo ello el objeto fundamental de esta Ley viene constituido por la necesidad de realizar determinadas adecuaciones a las previsiones contenidas en la Ley 6/1989, de 6 de julio, de la Función Pública Vasca, en orden a su aplicación al personal al servicio del Consejo de Relaciones Laborales, atendidos la estructura y funcionamiento del mismo.

Artículo 1º

- 1.- El personal al servicio del Consejo de Relaciones Laborales incluido en el ámbito de aplicación de esta Ley, se integra por:
 - a) Funcionarios de carrera.
 - b) Funcionarios interinos.
 - c) Personal eventual.
 - d) Personal laboral.
- 2.- Los puestos de trabajo del Consejo de Relaciones Laborales serán desempeñados, con carácter general, por funcionarios. Excepcionalmente, con arreglo a los requisitos y forma señalados en la Ley de la Función Pública Vasca, podrán ser desempeñados por quien carezca de dicha condición.

Artículo 2º

Corresponde al Pleno del Consejo:

- a) Batzordeko lehendakariaren proposamenez, Lan-Harremanetarako Batzordeko langilegoari buruzko politika orokorra ezartzea.
- b) idazkari nagusiaren proposamenez, aurrekontuetan sartutako langile-zerrendak eta Batzordeko lanpostuen zerrendak prestatzea.
- c) idazkari nagusiaren proposamenez, Batzordearen urteroko lan-eskaintza publikoa onartzea, Jaur-laritzak onartutako erizpide nagusiei jarraiki.
- d) Batzordeko lehendakariaren proposamenez, karrerako funtzionari edota langile laboral finko izateko egin beharreko hautaketa-saioen oinarriak, programak eta edukiak onartzea, saio horietarako deia egitea eta epaimahaiak izendatzea.
- e) funtzionariarentzat gordetako lanpostuak betetzeko lehendakariak aurkeztzen dituen proposamenak onartzea.
- f) Lan-Harremanetarako Batzordearen zerbitzurako funtzionarien ordainketarako araubidea eta gainontzeko langileen lansari-baldintzak ezartzeko beharrezko neurriak hartzea.
- g) Batzordeko ordezkariak funtzionarien ordezkariekin lan-baldintzen gainean egin beharreko negoziazioetan eta langilego laborekin egin beharreko negoziazio kolektiboetan kontutan izan beharko dituzten ohar, norabide eta erizpideak ezartzea, Batzordearen ordezkaritza hori zehaztea eta, hala balegokio, lortutako akordioak onartu, sendetsi eta gauzatzea.
- h) Lan-Harremanetarako Batzordeko funtzionariak hasitako zigor-espedituen ebazpen-proposamenak erabakitzea, zerbitzutik behin betirako botatzeko zigorra denean.
- i) irailaren 30eko 9/1981 Legeak aitortzen dizkion egiteko guztiak betetzera, baita Batzordeko beste atal batzuri berariaz aitortu gabekoak ere.

3. atala

Batzordeko lehendakariari dagokio:

- a) Batzordeko langilegoari buruzko politika garatzea, bultzatzea, koordinatzea eta zaintzea.
- b) idazkari nagusiak Batzordeko Batzarrak onar ditzan aurkeztu beharreko proposamenei aurretiaz bere oneritzia ematea.
- c) Batzordeko batzarrari karrerako funtzionari edota langile laboral finko izateko egin beharreko hautaketa-saiotako oinarriak, programak eta edukiak proposatzea, baita deialdia eta epaimahai kalifikatzaileen osakera ere, eta saioak gainditu dituztenak izendatu, postuaren jabe egin edo, hala balegokio, kontratatzea.
- d) Batzarrari funtzionariarentzat gordetako lanpos-

- a) Establecer, a propuesta del Presidente del Consejo, la política general de personal en el Consejo de Relaciones Laborales.
- b) Elaborar las plantillas presupuestarias y las relaciones de puestos de trabajo del Consejo, a propuesta del Secretario General.
- c) Aprobar la oferta anual de empleo público del Consejo, a propuesta del Secretario General, dentro de las directrices generales aprobadas por el Gobierno.
- d) Aprobar, a propuesta del Presidente del Consejo, las bases, programas y contenido de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de funcionario de carrera o laboral fijo, convocarlas, y designar a los tribunales calificadores de las mismas.
- e) Aprobar las propuestas que el Presidente presente para la provisión de los puestos de trabajo reservados a funcionarios.
- f) Adoptar las medidas necesarias para la aplicación del régimen retributivo de los funcionarios y condiciones salariales del resto del personal al servicio del Consejo de Relaciones Laborales.
- g) Establecer las instrucciones, directrices y criterios de actuación a que deberán atenerse los representantes del Consejo en las negociaciones sobre las condiciones de trabajo con los representantes de los funcionarios, y en las negociaciones colectivas con el personal laboral, determinar la referida representación del Consejo, y, en su caso, aprobar y dar validez y eficacia a los acuerdos alcanzados.
- h) Decidir las propuestas de resolución de los expedientes disciplinarios incoados a funcionarios del Consejo de Relaciones Laborales, cuando supongan la sanción de separación definitiva del servicio.
- i) Ejercer cuantas otras funciones le atribuya la Ley 9/1981, de 30 de septiembre, así como cuantas otras no se encuentren atribuidas expresamente a otros órganos del Consejo.

Artículo 3º

Corresponde al Presidente del Consejo:

- a) Desarrollar, impulsar, coordinar y controlar la política de personal del Consejo.
- b) Dar su previa conformidad a las propuestas que ha de elevar el Secretario General para su aprobación por el Pleno del Consejo.
- c) Proponer al Pleno del Consejo las bases, programas y contenido de las pruebas selectivas para el acceso a la condición de funcionario de carrera o laboral fijo, su convocatoria y composición de los tribunales calificadores, así como nombrar y dar posesión, o en su caso contratar, a quienes las hayan superado.
- d) Proponer al Pleno la provisión de los puestos de

tuak, deialdi publikoa egin ondoren, merezimen-du-lehiaketaz nahiz aukerazko izendapenez betetzeko proposamena egitea.

- c) funtzionarien administrazio egoerak aditzera ematea eta iharduncango zerbitzuan berriro has-teko baimena ematea.
- d) behin-behingoko langilegoa eta bitarteko fun-tzionarioak izendatzea eta horiei postua utzeraz-tea, baita, Batzarrak oneritzia agertu ondoren, al-dirako lan-itunpeko langilegoa kontratatzea ere, indarrango araudiari jarraiki lan-utzeraztea berez eta besterik gabe ematen den kasuen kaltetan gabe.
- g) derrigorrezko erretiroak eta ezintasun fisikoak eragindakoak adieraztea.
- h) langilego laboral finkoaren kontratuen iraungipe-na, arrazoizko kausek nahiz zigor-egozteak era-ginda, erabakitzea, eta, bidezko den kasuetan, heroiek indargabetzea.
- i) zerbitzu-eginkizunak ematea eta lanposturen bati behin-behinean atxikitzea.
- j) maila pertsonalen eskuratze eta aldaketak onar-tzea, baita, hirurtekoen ondorioetarako, lehendik administrazioan emandako zerbitzuak ere.
- k) produktibitate osagarriagatik banakakotutako zenbatekoak izendatzea eta ohiz kanpoko zerbi-tzuengatik hobariak ematea, Batzordeko Batza-rrak onartutako banaketa irizpideekin bat etorritz.
- l) Batzarrak ordezkotzan ematen dizkion egitekoak betetzea.

4. atala

Idazkari Nagusiari dagokio:

- a) Ordainketa araubidearen ezarpena eta Batzordeko Batzarrak aurrekontuetan sartutako langile-zerrenda, lanpostuen zerrenda eta lan-eskaintza publikoa onar ditzala proposatzea.
- b) Zerbitzuaren emankortasuna eta langilegoaren sustapena eta gaikuntza hobetzeko neurriak eta ekimenak bultzatzea, koordinatzea eta, hala be-har izan ezker, burutzea.
- c) Langilegoari dagozkionetan ikuskatze-lanak egi-tea eta funtzio publikoaren alorrean orohar ezar-daitezkeen arauak betetzen direla zaintzea.
- d) Funtzio publikoaren alorrean beste administra-zioetan aginpidedun diren organoen aurrean Batzordea ordezkatzeta.
- e) Bateragarritasun-espedienteak erabakitzea.
- f) Indarrean dauden xedapenen arabera zigortzeko ahalmenez baliatzea, langilego laboralaren ka-suan zerbitzua behin betiko utzeraztekoaz eta egoztekoaz salbu.

trabajo reservados a funcionarios, mediante con-curso de méritos o libre designación, previa con-vocatoria pública.

- e) Declarar las situaciones administrativas de los funcionarios y conceder su reingreso al servicio activo.
- f) Designar y cesar al personal eventual y a los funcionarios interinos, así como contratar al perso-nal laboral temporal, previa conformidad del Pleno, sin perjuicio de los casos en que conforme a la normativa vigente el cese sea automático.
- g) Declarar las jubilaciones forzosas y por incapaci-dad física.
- h) Resolver la extinción de los contratos del perso-nal laboral fijo por causas objetivas o por despi-do disciplinario, y su suspensión en los casos que proceda.
- i) Conferir comisiones de servicios y adscribir pro-visionalmente al desempeño de un puesto de tra-bajo.
- j) Reconocer la adquisición y cambio de grados personales, y, a efectos de trienios, los servicios previos prestados en la Administración.
- k) Asignar las cuantías individualizadas en concepto de complemento de productividad y conceder gratificaciones por servicios extraordinarios, de conformidad con los criterios de distribución aprobados por el Pleno del Consejo.
- l) Ejercer cuantas funciones le delegue el Pleno.

Artículo 4º

Corresponde al Secretario General:

- a) Proponer la aplicación del régimen retributivo y la aprobación por el Pleno del Consejo de la plantilla presupuestaria, relaciones de puestos de trabajo y la oferta de empleo público.
- b) Promover, coordinar y, en su caso, ejecutar me-didas e iniciativas tendentes a mejorar el ren-dimiento en el servicio y la promoción y for-mación del personal.
- c) Ejercer la inspección general en materia de per-sonal y cuidar del cumplimiento de las normas de general aplicación en materia de función pú-blica.
- d) Ejercer la representación del Consejo ante los órganos competentes en materia de función pú-blica de las demás Administraciones.
- e) Resolver los expedientes de compatibilidad.
- f) Ejercer las potestades disciplinarias conforme a las disposiciones vigentes, excepto la separación definitiva del servicio y el despido, en el caso de personal laboral.

- g) Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeak hizkuntza normalkuntzarako egiten dituen aurrikuspenak Batzordean betetzeko beharrezko neurriak hartzea.
- h) Lizentziak ematea.
- i) Orohar, langilegoaren buruzagitza eta ohizko administrazio eta kudeaketa ekintzak.

5. atala

- 1.- Lan-Harremanetarako Batzordeko funtzionariak, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko 43. atalean erabakitakoarekin bat etorriz, ondoren aipatzen diren kidegoen barne geldituko dira, adierazten diren taldeetan bildurik:

A TALDEA

A-1 Administrazio Goi Mailako Kidegoa.

A-2 Fakultatiboen Goi Mailako Kidegoa.

B TALDEA

B-1 Administrazio Kudeaketa Kidegoa.

B-2 Erdi Mailako Teknikarien Kidegoa.

C TALDEA

C-1 Administrazio Kidegoa.

C-2 Teknikari Laguntzaileen Kidegoa.

D TALDEA

D-1 Administrazi Laguntzaile Kidegoa.

E TALDEA

E-1 Menpekoen Kidegoa.

- 2.- Hona hemen kidegocik dagozkien oinarritzko eginkizunak:

- a) Administrazio Goi Mailako Kidegoari: programaketa, kudeaketa, egiteratze, ikuskatze nahiz zaintze alorretako goi mailako azterlan edota proposamenak egitea, administrazioaren iharduerari dagozkionak hain zuzen.

Kidego honetan sartu ahal izateko, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko 43. atalean A Taldearentzat ezarritako titulua izatea eskatuko da.

- b) Kudeaketa Kidegoari: goi mailako eginkizuntan lankidetzak eskaintzea, araudia ezartzea, espediente normalizatuen erabaki-proposamena egitea eta goi mailakoei ez dagozkien azterlan eta txostenak prestatzea.

Kidego honetan sartu ahal izateko, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko 43. atalean B Taldearentzat ezarritako titulua izatea eskatuko da.

- g) Adoptar las medidas precisas para el cumplimiento en el seno del Consejo de las previsiones sobre normalización lingüística contenidas en la Ley de la Función Pública Vasca.
- h) Conceder licencias.
- i) En general, la jefatura del personal y los actos de administración y gestión ordinaria.

Artículo 5º

- 1.- Los funcionarios del Consejo de Relaciones Laborales, conforme a lo dispuesto en el artículo 43 de la Ley de la Función Pública Vasca, pertenecerán a los siguientes Cuerpos que se crean, englobados en los grupos que se expresan:

GRUPO A

A-1 Cuerpo Superior de Administración.

A-2 Cuerpo Superior Facultativo.

GRUPO B

B-1 Cuerpo de Gestión Administrativa.

B-2 Cuerpo de Técnicos de Grado Medio.

GRUPO C

C-1 Cuerpo Administrativo.

C-2 Cuerpo de Ayudantes Técnicos.

GRUPO D

D-1 Cuerpo Auxiliar Administrativo.

GRUPO E

E-1 Cuerpo Subalterno.

- 2.- Las funciones básicas que corresponden a los diferentes Cuerpos son las siguientes:

- a) Al Cuerpo Superior de Administración, el desempeño de tareas de estudio y propuesta de nivel superior, comunes a la actividad administrativa, en áreas de programación, gestión, ejecución, inspección o control.

Para el acceso al Cuerpo se exigirá la posesión de titulación que para el Grupo A se establece en el artículo 43 de la Ley de la Función Pública Vasca.

- b) Al Cuerpo de Gestión, el desempeño de funciones de colaboración con las de nivel superior, así como las de aplicación de normativa, propuestas de resolución de expedientes normalizados y estudios e informes que no correspondan a tareas de nivel superior.

Para el acceso al Cuerpo se exigirá la posesión de titulación que para el Grupo B se establece en el artículo 43 de la Ley de la Función Pública Vasca.

- c) Administrazio Kidegoari: goi mailako eginkizunen prestaketarako nahiz berorien ondoriozko elkarlanak burutzea, dokumentazioa egiaztatzea eta bere konplexutasunagatik goi mailako kidegocik ez dagokiena prestatzea; horiez gain, kidego honi dagokio, halaber, mekanografia-lanak, eskulanak edota zenbaki-hainbaketa lanak egitea, baita jendeari argibideak eman eta harrera egitea ere.

Kidego honetan sartu ahal izateko, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko 43. atalean C Taldearentzat ezarritako titulua izatea eskatuko da.

- d) Administrari Laguntzaile Kidegoari: administrazioaren iharduera alorretan laguntzaile lanak egitea; makinaz idaztea eta gutunak bidaltzea; kalkulu bakuna; dokumentuak transkribatzea; artxibatzea, sailkatzea eta erregistro-lanak; fitxategiak zaintzea eta jendeari harrera egitea, eta antzekoak.

Kidego honetan sartu ahal izateko, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko 43. atalean D Taldearentzat ezarritako titulua izatea eskatuko da.

- e) Menpekoen Kidegoari: ondasun publikoak jagotea eta zaintzea; bulego nahiz zentru publikoetara joandako pertsonen kontrola; arretaren kokapenari buruzko informazioa ematea; langai, altzari eta instalazioak zaintzea; eskutitzak sailkatzea eta banatzea; makina birproduzitzailerak erabiltzea; dokumentuak eta espedienteak igortzea, jakinarazpenak ematea, eta, orohar, jagole-etxezainaren berezko eginkizunak.

Kidego honetan sartu ahal izateko, Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legeko 43. atalean E Taldearentzat ezarritako titulua izatea eskatuko da.

- f) Fakultatiboen Goi Mailako Kidegoari, Erdi Mailako Teknikarien Kidegoari eta Teknikari Laguntzaileen Kidegoari: kidego horietan sartu ahal izateko eskatutako titulua lanbide bat egiteko esku ematen dionez, lanbide horretako eginkizunak betetzea, bai eta ikasketa jakin batzuk emandako ezaugarri berariazkoa eta zehatza eskatzen duten eginkizunak ere.

Fakultatiboen Goi Mailako Kidegoan, Erdi Mailako Teknikarien Kidegoan eta Teknikari Laguntzaileen Kidegoan sartu ahal izateko, Euskal Funtzio Publikoari buruzko legeko 43. atalean A, B, eta C Taldearentzat ezarritako titulua izatea eskatuko da, hurrenez hurren. Kidego horiei dagozkien aurrekontuetan sartutako langile-zerrendek adieraziko dute titulazio jakin bati nahiz, hala balegokie, titulazio batzuei zenbat lanpostu dagozkien.

- c) Al Cuerpo Administrativo, el desempeño de tareas de colaboración preparatorias o derivadas de las de nivel superior, la comprobación de documentación y la preparación de aquella que, por su complejidad, no sea propia de Cuerpos Superiores; tareas mecanográficas, manuales o de cálculo numérico, y de información y despacho al público.

Para el acceso al Cuerpo se exigirá la posesión de titulación que para el Grupo C se establece en el artículo 43 de la Ley de la Función Pública Vasca.

- d) Al Cuerpo Auxiliar Administrativo, el desempeño de tareas de carácter auxiliar en las áreas de actividad administrativa; mecanografía y despacho de correspondencia; cálculo sencillo; transcripción de documentos; archivo, clasificación y registro; ficheros y atención al público, o similares.

Para el acceso al Cuerpo se exigirá la posesión de titulación que para el Grupo D se establece en el artículo 43 de la Ley de la Función Pública Vasca.

- e) Al Cuerpo Subalterno, las tareas de vigilancia y guardería de bienes públicos; control de las personas que accedan a oficinas o centros públicos; información sobre ubicación de locales; custodia de material, mobiliario e instalaciones; clasificación y reparto de correspondencia; manejo de máquinas reproductoras; traslado de documentos y expedientes, entrega de notificaciones, y, en general, las propias de vigilante conserje.

Para el acceso al Cuerpo se exigirá la posesión de titulación que para el Grupo E se establece en el artículo 43 de la Ley de la Función Pública Vasca.

- f) A los Cuerpos Superior Facultativo, de Técnicos de Grado Medio y de Ayudantes Técnicos, la realización de tareas propias de la profesión para cuyo ejercicio habilite la titulación exigida para el acceso al Cuerpo, y el desempeño de funciones que requieran de conocimientos propios y específicos de una concreta formación académica.

Para el acceso a las plazas pertenecientes a los Cuerpos Superior Facultativo, de Técnicos de Grado Medio y de Ayudantes Técnicos, se exigirá respectivamente la posesión de titulación de los Grupos A, B y C establecida en el artículo 43 de la Ley de la Función Pública Vasca. Las plantillas presupuestarias correspondientes a los referidos Cuerpos indicarán la dotación de plazas que correspondan a una titulación determinada o, en su caso, a varias.

- 3.- Nolanahi ere, titulazio bera eskatzen duten lanpostuak deialdi bateratuez eta hautaketa-saio amankomunez beteko dira.
- 4.- Sortzen diren kidegoen berezko eginkizunek inolaz ere ez dute esan nahiko lanpostu jakin batzuk kidego horiei gordetzen zaizkizkiz.

GEHIGARRIZKO XEDAPENA

- 1.- Lan-Harremanetarako Batzordeko funtzionarioei Gizarte Segurantzaren erregimen orokorra ezarriko zaie.
- 2.- Legez ezarritako mugikortasun bideen ondorioz beste administrazioetatik Batzordean sartzen diren funtzionarioek jatorrizko gizarte aurrikuspe-nezko erregimena izango dute.

ALDI BATERAKO XEDAPENAK

Lehenengoa

Lan-Harremanetarako Batzordeak, Lege hau indarrean jartzen den egunetik hasita sei hilabeteko epean eta bertan adierazitako aginduekin bat etorriz, bertako lanpostuen eginkizunak aztertu eta sailkatuko ditu, funtzionarioei, langilego laboralari eta behin-behingoko langilegoari dagozkionak zehaztuko dituelarik; hori ezezik, lanpostuen zerrendak prestatu eta onartuko ditu, bakoitzari izendatutako lantoki-osagarria eta, hala badagokio, osagarri berezia zenbatekoa den adieraziko duelarik, eta horren arabera, kidegoen eta langilego laboralaren aurrekontuetan sartutako langile-zerrenda ezarriko du.

Bigarrena

- 1.- Abuztuaren 2ko 30/1984 Legeko aldibaterako seigarren xedapenaren laugarren idazatian erabakitakoaren babescan, aldibaterako lankidetzak kontratu administratiboa izanik funtzio publikorako sarbidearen zain Lan-harremanetarako Batzordearen zerbitzupean dagoen langilegoak funtzionario edota langile laboral finko izatera lor dezake, bere eginkizunen sailkapenaren arabera, horretarako antolatutako saio osagarrien bitartez. Saio horien edukia lehiakideak bete beharreko eginkizunei lotuko zaizkio, horretarako ezartzen diren merezimenduak eta baldintzak egiaztatuz.
- 2.- Aurreko idazatian oharremandako ondorioetarako, Lan-Harremanetarako Batzordeak merezimenduen lehiaketarako deia egingo du, lanpostuen zerrenda onartu ondoren; lehiaketa horretan parte hartu ahal izango dute iharduneango zerbitzu egoeran daudenak eta borondatezko lan-utzialdian edota zerbitzu bereziak eskaintzen daudenak.

Lehiakidea hautaketa prozesura azaltzen ez bada edota berori gaingitzen ez badu, kontratu harremana berez eta besterik gabe amaitzea erabakiko da; nolanahi ere, erabaki hori lehiaketa erabaki-

- 3.- En todo caso, la cobertura de aquellas plazas que requieran de igual titulación se producirá mediante convocatorias unitarias y pruebas selectivas comunes.
- 4.- Las funciones propias de los Cuerpos que se crean, en ningún caso prejuzgarán la reserva a los mismos de puestos de trabajo determinados.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

- 1.- A los funcionarios del Consejo de Relaciones Laborales les será de aplicación el régimen general de la Seguridad Social.
- 2.- Los funcionarios de otras Administraciones que en virtud de los mecanismos de movilidad legalmente establecidos se incorporen al Consejo conservarán el régimen de previsión social que tuvieran originariamente.

DISPOSICIONES TRANSITORIAS

Primera

El Consejo de Relaciones Laborales, en el plazo de seis meses desde la entrada en vigor de esta Ley y conforme a las prescripciones establecidas en la misma, analizará y clasificará las funciones de sus puestos, determinando las que correspondan a funcionarios, personal laboral y eventual; elaborará y aprobará las relaciones de puestos de trabajo, señalando el nivel de complemento de destino asignado a cada uno de ellos y la cuantía que corresponda, en su caso, en concepto de complemento específico, y, en función de aquéllas, establecerá las plantillas presupuestarias de los distintos Cuerpos y del personal laboral.

Segunda

- 1.- El personal con contrato administrativo de colaboración transitoria que, al amparo de lo dispuesto en el apartado cuarto de la Disposición Transitoria Sexta de la Ley 30/1984, de 2 de agosto, se encuentre al servicio del Consejo de Relaciones Laborales en expectativa de acceso a la función pública, podrá adquirir la condición de funcionario o personal laboral fijo, según la naturaleza con que hubieran sido clasificadas sus funciones, mediante su acceso a través de las pruebas complementarias que al efecto se convoquen. El contenido de tales pruebas atenderá a la adecuación del aspirante a las funciones que hubiera de desempeñar, mediante la constatación de los méritos y condiciones que para ello se establezcan.
- 2.- A los efectos previstos en el apartado anterior, y una vez aprobada la relación de puestos de trabajo, el Consejo de Relaciones Laborales convocará concurso de méritos, en el que podrán participar quienes estén en situación de servicio activo, así como aquellos que tuvieran reconocida una situación asimilada a excedencia voluntaria o servicios especiales.

La falta de concurrencia al proceso selectivo, o su no superación, determinará la automática extinción de la relación contractual, que, en todo caso, deberá producirse en el plazo máximo de

tzen den egunetik hasi eta handik hiru hilabeteke epe barruan gauzatu beharko da. Alabaina, doakion langilegoak funtzio publikorako sarbiderako hurrengo deialdietan parte har dezake, eta lehendik emandako zerbitzuak baloratu egingo zaizkio, funtzio publikoaren esparruak hartzen duen langilegoarentzat aldibaterako hirugarren erabakian ohartemandako baldintza eta muga berberekin.

- 3.- Hautaketa prozesua gainditurik, funtzionari edota langile laboral finko izatea lortzen duten lehia-kideek lehendik izendatuak zituzten lanpostuak beteko dituzte.
- 4.- Aurreko idazatietan agindutakoa bete arte, aldibaterako kontratudun langilegoak egungo zerbitzu-harremanari eutsiko dio, lehendik betetzen ari zen lanpostuan segituko du, lanpostu horiei emandako izaera alde batera, eta dagozkion ordainketak Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean ezarritako errejimenera egokituko zaizkio.

Hirugarrena

- 1.- Lege hau indarrean jartzen denean Lan-harremantarako Batzordean bitarteko legez diharduen langilegoak funtzionari edota langile laboral finko izatea lor dezake, bere eginkizunen sailkapenen arabera, Lan-Harremantarako Batzordeak horretarako deitutako lehiaketa-norghiagoka libreko prozedura bidez; prozedura horretan, langilego horrek edozein administrazio publikotan lehendik emandako zerbitzuak baloratuko dira, norghiagoka aldian atara daitezkeen puntuen chuncko berrogeitabostekin gheinez.

Lege hau indarrean jartzen denetik egiten diren lehendabiziko hiru lan-eskaintza publikoen ondorioz egindako deialdietan ezarriko da balorazio hori.

Aurreko idazatian aipatzen diren deialdiak bete ondoren funtzionari edota langile laboral finko izatea lortzen ez duten langileek Lan-Harremantarako Batzordeko zerbitzua utziko dute, azken deialdia erabakitzen den egunetik hasita hiru hilabeteke epe barruan.

- 2.- Aurreko idazatietan agindutakoa bete arte, bitarteko kontratudun langilegoak egungo zerbitzu-harremanari eutsiko dio, lehendik betetzen ari zen lanpostuan segituko du eta dagozkion ordainketak Euskal Funtzio Publikoari buruzko Legean ezarritako errejimenera egokituko zaizkio.

Laugarrena

Lehen adierazitako aldibaterako xedapenen arabescan funtzionari edota langile laboral finko izatea lortzen duten langileei edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuak aitortuko zaizkie, hirurtekoen eta aintzinasunaren ondorioetarako.

tres meses desde la resolución del concurso. Ello no obstante, el personal afectado podrá participar en las convocatorias futuras de acceso a la función pública, siéndole valorados los servicios prestados en los mismos términos y con igual alcance que el previsto en la Disposición Transitoria Tercera para el personal comprendido en el ámbito de la misma.

- 3.- Los aspirantes que, a resultados del proceso celebrado, accedieran a la condición de funcionario o laboral, mantendrán el desempeño de los puestos de trabajo que tuvieran asignados.
- 4.- Hasta tanto se da cumplimiento a lo preceptuado en los anteriores apartados, el personal con contrato de colaboración transitoria mantendrá su actual relación de servicios, permanecerá en los puestos de trabajo que viniera ocupando, con independencia de la naturaleza que a los mismos se hubiera otorgado, y adecuará sus retribuciones al régimen previsto en la Ley de la Función Pública Vasca.

Tercera

- 1.- El personal que a la entrada en vigor de esta Ley tenga la condición de interino en el Consejo de Relaciones Laborales podrá acceder a la condición de funcionario o personal laboral, según hayan sido clasificadas sus funciones, mediante el procedimiento de concurso-oposición libre convocado al efecto por el Consejo de Relaciones Laborales, en el que se valorarán los servicios prestados por dicho personal en cualquier Administración Pública, con un máximo del cuarenta y cinco por ciento de la puntuación alcanzable en la fase de oposición.

Dicha valoración se aplicará en las convocatorias derivadas de las tres primeras ofertas de empleo público que se produzcan a partir de la entrada en vigor de esta Ley.

Quienes no accedieren a la condición de funcionario o laboral una vez celebradas las convocatorias a que se refiere el párrafo anterior, cesarán en el servicio del Consejo de Relaciones Laborales con el plazo máximo de tres meses desde la resolución de la última de ellas.

- 2.- Hasta tanto se dé cumplimiento a lo preceptuado en el apartado anterior, el personal interino mantendrá su actual relación de servicios, permanecerá en los puestos de trabajo que viniera ocupando, y adecuará sus retribuciones al régimen previsto en la Ley de la Función Pública Vasca.

Cuarta

Al personal que acceda a la condición de funcionario o laboral al amparo de las precedentes disposiciones transitorias le serán reconocidos a efectos de trienios y antigüedad los servicios prestados en cualquier Administración Pública.

INDARGABETZEKO XEDAPENA

Indargabeturik gelditzen dira Lege honen aurka-koak diren xedapen guztiak, maila berekoak zein txikiagokoak izan.

AZKEN XEDAPENA

Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamoncan jarriko da indarrean.

Beraz, Lege honi men egiteko eta men eginarazteko agintzen diet, norbanako zein agintari direla, Euskadiko herritar guztiei.

Ajuria-Eneako Jauregian, 1992ko maiatzak 18.

Lehendakaria,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas todas aquellas disposiciones de igual o inferior rango que se opongan a lo establecido en la presente Ley.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Ley entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Por consiguiente, ordeno a todos los ciudadanos de Euskadi, particulares y autoridades, que la guarden y hagan guardarla.

Palacio de Ajuria-Enea, a 18 de mayo de 1992.

El Lehendakari,
JOSE ANTONIO ARDANZA GARRO.

Agintariak eta Langilegoa Autoridades y Personal

Izendapenak, Egoerak eta Gorabeherak Nombramientos, Situaciones e Incidencias

**MERKATARITZA, KONTSUMO
ETA TURISMO SAILA**

1533

AGINDUA, 1992ko maiatzaren 28koa, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailburuarena, Euskal Autonomi Elkarteko Turismorako Aholku Kontseiluko bokalak izendatzen dituenak.

Euskal Autonomi Elkarteko Turismorako Aholku Kontseilua sortzeari buruzko martxoaren 31ko 80/1992 Dekretuaren 4. ataleko 2 idatzian ezartzen denez, Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailburuaren Aginduz izendatuko dira Kontseilu horretako bokalak.

Kontseiluan ordezkariak dituzten izaiki, organu eta elkarteen proposamenak jaso ondoren, organu horretako kideak izendatzen dira Agindu honen bidez.

Horiek horrela, honako hau

XEDATU DUT:

Atal bakarra.— Lehendakari eta Lehendakariordearekin batera Euskal Autonomi Elkarteko Turismorako Aholku Kontseiluaren (martxoaren 31ko 80/1992 Dekretuz sortua) osakide izango diren bokal lez, honako hauek izendatzen dira:

**DEPARTAMENTO DE COMERCIO, CONSUMO
Y TURISMO**

1533

ORDEN de 28 de mayo de 1992, de la Consejera de Comercio, Consumo y Turismo, por la que se nombran vocales del Consejo Consultivo de Turismo del País Vasco.

El apartado 2 del artículo 4 del Decreto 80/1992, de 31 de marzo, por el que se crea el Consejo Consultivo de Turismo del País Vasco, establece que los vocales de dicho Consejo serán nombrados mediante Orden del Consejero de Comercio, Consumo y Turismo del Gobierno Vasco.

Habiéndose recibido por parte de las diferentes entidades, órganos y asociaciones representadas en el Consejo las correspondientes propuestas, se procede en esta Orden al nombramiento de los integrantes del citado órgano.

En su virtud,

DISPONGO:

Artículo único.— Se designan vocales, que junto al Presidente y Vicepresidente compondrán el Consejo Consultivo de Turismo del País Vasco creado por Decreto 80/1992, de 31 de marzo, a las personas siguientes: